

BIGARREN HEZKUNTZA

GARAPENAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Nerabezaroa haurtzaroaren eta gaztaroaren artean gertatzen den krisi-tartea da, heldutasunerako bidean dagoena. Garai honetan, garapenaren hainbat alderditan aldaketa garrantzitsuak gertatuko dira.

Adin honetako pertsonak adierazten dituzten ezaugarri orokor eta esanguratsuenak modu labur eta sinple batean azaltzeko helburua du laburpen honek. Kontuan izan, hala ere, haur bakoitzaren garapen prozesua indibiduala dela eta bakoitzak bere eritmoa jarraituko duela.

Pubertaro garaia da, eta aldaketa hormonalak, organu sexualen heldutasuna eta aldaketa anatomiko esanguratsuak gertatzen dira. Honek nerabeengan beren gorputzarekin arrotz arrotz sentitzea eragin lezake. Honekin batera, sexualitatea piztu egiten da, eta honen lehen agerraldiak ematen dira (lehenbiziko bikote harremanak eta kontaktu sexualak, autoerotismo jokabideak...).

Intelektualki nerabeak salto kognitibo garrantzitsua emango du, bere abstrakziorako gaitasuna nabarmen handitzen baita. Hainbat gauza ulertzeko gaitasuna garatuko du, pentsamendu kritikoa zabalduz.

Nerabezaroa dolu prozesu garrantzitsua da, helduak izateko bidean gurasoengandik banaketa prozesu afektibo bat gertatzen delako. Prozesu honetan gora-behera emozional handiak egotea normala da eta tristura, angustia, amorrua, erruduntasuna, lotsa, zalantza, ziurgabetasuna,.... bezalako emozioak tartekatuta egiten dira. Hortaz, portaera paradogikoak izan ohi dituzte:

- Hainbat momentutan gurasoekiko dependentzia eta demanda handia izan litezke. Beste momentu batzuetan, ordea, bakardadea edo isolamendu beharra eta independentzia eskaerak ager litezke.
- Batzuetan gauzak beren kabuz egin nahi izango dituzte eta bestetan, ordea, laguntza eskatuko dute. Hainbatetan, egiten zaizkien galderekin

haserretuko egingo dira, eta kontrolarengatik haserrea azalduko dute, bestetan, aldiz, ardura, helduaren jarraipena eta babesa eskatuko dituzte.

Identitate-krisi garrantzitsua da, eta nerabeak bere identitatea bilatu nahi izango du. Horretarako, ordurarte izandako identitate ereduak kolokan jarriko ditu, eta autoritate eta arauetikiko kuestionamendua gerta liteke. Ezin dugu ahaztu autoafirmazioa, autonomia eta independentziarako beharrezko prozesua dela. Lagun taldea izaten da nerabeari identitatea eman ohi diona, adin honetan taldeak berebiziko garrantzia izanik.

HELDUAREN PAPERA:

- Lasaitasuna eta konfiantza transmititu behar zaizkio. Berak izan ditzakeen angustia, haserrea edo gora-behera emozionalak kontenitzeko garrantzitsua da heldua lasai mantentzea.
- Entzun egin behar zaio eta bere gauzekiko interesa azaldu behar da. Izan ditzakeen kezka edo ardurak entzuteko prest gaudela ikusi behar du. Bere gustokoak diren gauzez galdetu, lagunekin dauzkan harremanetikiko interesa azaldu... Bere dependentzia-independentzia paradoxa dela eta, gure interesaren aurrean modu zatarrean erantzun lezake, intimitatea eskatuz. Hala eta guztiz ere, gurasoak hor daudela sentitzeak segurtasuna emango dio.
- "Askatuz" joan behar dugu. Ardurak hartzen joan behar da, baina ezin dugu bakarrik utzi. Bere autonomizazio- eta heldutze-prozesuan, bere kabuz gauzak egiten hasi behar du, baina helduaren gida eta gainbegiraketa beharrezkoak dira oraindik. Ezin dugu ahaztu oraindik ere bere burua guztiz kudeatzeko ikasketa prozesu batean dagoela eta helduak ematen dizkion segurtasuna eta pautak behar dituela.
- Autoritatea behar du. Arauak eta mugak behar ditu. Autoafirmazio beharra edukitzeak eta autoritatearekiko kuestionamendua agertzeak ez du esan nahi berak nahi duena egin dezakeenik. Arauak jarri behar zaizkio, baina hainbat momentutan malgutasunez jokatu beharko dugu. Hainbat unetan erabakiak helduarenak bakarrik izango badira ere, eta erabaki edo arau batzuk helduaren partetik badatoz ere, horrelako jarrerak lagungarriak izan litezke: gauzak zuzenean inposatu beharrean

proposatzea, hartzen diren erabakien inguruko azalpenak ematea eta, batez ere, NEGOZIATZEA. Nerabezaroan negoziaketa eraginkortasun handiko baliabidea izango da. Hala, helduak mugak eta arauak jarri ahal izango ditu, baina nerabeak erabakitze-prozesuan parte hartu ahal izango du, bere iritzia eta desioak kontuan hartzen direla pertzibituko duelarik.

EDUCACIÓN SECUNDARIA

Características generales del desarrollo

La adolescencia es el intervalo de crisis que se produce entre la infancia y la juventud, en el camino hacia la madurez. En esta época se van a producir cambios importantes en diferentes aspectos del desarrollo.

Este resumen pretende explicar de una manera breve y sencilla los rasgos más generales y significativos que manifiestan las personas de esta edad. Hay que tener en cuenta, sin embargo, que el proceso de desarrollo de cada niño es individual, y cada uno seguirá su ritmo.

Es una época de pubertad en la que se producen cambios hormonales, madurez de los órganos sexuales y cambios anatómicos significativos. Esto podría hacer que los adolescentes se sintieran extraños con su cuerpo. Además, la sexualidad se estimula y se manifiesta por primera vez (primeras relaciones de pareja y contactos sexuales, conductas de autoerotismo...).

Intelectualmente el adolescente dará un salto cognitivo importante, ya que su capacidad de abstracción aumenta considerablemente. Desarrollará la capacidad de entender diferentes cosas, extendiendo el pensamiento crítico.

La adolescencia es un proceso de duelo importante, porque en el camino de ser adultos se produce un proceso afectivo de separación de los padres. En este proceso es normal que haya grandes altibajos emocionales, y se alternan emociones como tristeza, angustia, rabia, culpabilidad, vergüenza, duda, incertidumbre, etc. Por lo tanto, suelen tener comportamientos paradójicos:

- En varios momentos la dependencia y la demanda hacia los padres podrían ser grandes. En otros momentos, sin embargo, podrían aparecer peticiones de soledad o necesidad de aislamiento e independencia.
- Algunas veces querrán hacer las cosas por sí mismos, y otras veces, sin embargo, pedirán ayuda. En varias ocasiones se enfadarán con las preguntas que se les hagan y mostrarán su enfado por el control, mientras que en otras pedirán responsabilidad, seguimiento del adulto y protección.

Se trata de una importante crisis de identidad en la que el adolescente buscará su propia identidad. Para ello, cuestionará los modelos de identidad existentes hasta entonces, y podría producirse un cuestionamiento a la autoridad y a las normas. No podemos olvidar que es un proceso necesario para la autoafirmación, la autonomía y la independencia. Es el grupo de amigos el que suele dar identidad al adolescente, siendo el grupo vital en esta edad.

FUNCIÓN DEL ADULTO:

- Hay que transmitirle tranquilidad y confianza. Para contentar las angustias, enfados o vicisitudes emocionales que pueda tener es importante que el adulto se mantenga tranquilo.
- Hay que escucharle y mostrar interés por sus cosas. Tiene que ver que estamos dispuestos a escuchar las preocupaciones o responsabilidades que pueda tener. Preguntarle por cosas que le gustan, interesarse por las relaciones con sus amigos... Dada la paradoja de su independencia-dependencia, podría responder de forma desagradable ante nuestro interés, reclamando intimidad. A pesar de todo, sentir que sus padres están ahí le dará seguridad.
- Tenemos que ir "soltándolos". Tiene que ir asumiendo responsabilidades, pero no podemos dejarlo solo. En su proceso de autonomización y maduración tiene que empezar a hacer cosas por sí mismo, pero la guía y supervisión del adulto siguen siendo necesarias. No podemos olvidar que todavía está en un proceso de aprendizaje para gestionarse plenamente, y necesita la seguridad y las pautas que le da el adulto.
- Necesita autoridad. Necesita normas y límites. Tener necesidad de autoafirmación y mostrar un cuestionamiento a la autoridad no significa

que pueda hacer lo que quiera. Hay que ponerle normas, pero en varios momentos tendremos que actuar con flexibilidad. Aunque en diferentes momentos las decisiones sean exclusivas del adulto, y algunas decisiones o normas vengan de parte del adulto, este tipo de actitudes podrían ayudar: proponer las cosas en lugar de imponerlas directamente, dar explicaciones sobre las decisiones que se toman y, sobre todo, NEGOCIAR. En la adolescencia la negociación será un recurso de gran eficacia. Así, el adulto podrá poner límites y normas, pero el adolescente podrá participar en el proceso de decisión, asumiendo que se tiene en cuenta su opinión y sus deseos.